

Modu **azkar eta erraza** da, eta bankuaren bulegoetara joan beharrik gabe osatzen da

Kutxabankek helbideratu gabeko errezibo eta zergak mugikorrez ordaintzeko gomendioa egiten du

- **Nahikoa da errezibo bakoitzaren barra-kodea kameraz hartzea eta ordainketa agintzea**
- **Urteko lehen lau hilabeteetan, online ordaindu diren errezibo, kuota eta zerga guztien %61 telefono mugikorrarekin kitatu dira**

2020ko maiatzaren 19an. Alerta egoeraren deseskalatze prozesua bete betean den honetan, Kutxabankek erabat beharrezkoa ez bada Bankuaren bulegoetara ez joateko gomendioa egiten jarraitzen du. Horregatik, eta egunotan hainbat erakundek beren zerga, kuota, eta matrikulen kargua egiten dutenez, helbideratu gabeko **erreziboan ordainketarako mugikorraren zerbitzua** erabiltzeko aholkua egiten du.

Sistema honen abantaila handiena da ez dagoela bankuaren bulegora joan beharrik, edota kutxazain automatikoak erabili beharrik. Kontutan hartu behar da, Kutxabanken bulegoan eta bere kutxazain sare zabalean, urtero 600.000 errezibo ordaintzen direla, batik bat leihatilan kontura kargua eginez edota eskudirutan.

Funtzionaltasun hau Kutxabanken Banka mugikorraren **‘Nire erreziboak’** atalean dago eskuragarri, eta bertatik gaitu daiteke mota horretako agiriekin atxikita dakarten barra-kodearen irakurketa zerbitzua.

Telefonoaren kameraz barra-kodearen irudia jaso ostean, automatikoki aktibatuko da aplikazioan bertan ordainketa egiteko aukera, kontuaren kargura, datuak teklatu barik. Erreziboak barra-koderik ez badu edo gailuaren kamera ez badabil, eskuz sar daitezke igorleak emandako datuak.

Ordainketa egin ostean **telefonotik bertatik helbideratzeko** aukera ematen du, kontu baten kargura, eta baimena eman daiteke, une horretatik aurrera, fakturak bankuak berak ordain ditzan. Hartara, bezeroak helbideratzearen abantailak izango ditu; ordainketa automatikoki egiten da, egikaritze-datatik kezkatu behar izan barik.

Gainera, funtzionaltasun honek ordaindutako eta itzulitako erreziboak **kontsultatzeko** aukera ematen du, **grafikoen** bidez gastua kontrolatu daiteke, **alertak** aktibatu,

helbideratutako kontua aldatu, **itzulketa aginduak** eman eta, erreziboak aukera eskaintzen badu, finantziatu.

Geroz eta bezero gehiagok erabiltzen dituzte Kutxabanken kanal digitalak erreziboak ordaintzeko. 2020ko lehen hiruhilekoan, errezibo guztien ordainketen **%21 kanal digitalen** bidez egin zen, batik bat mugikorraren bidez. Apirilaren bukaerara arte, online kitatu ziren errezibo, kuota eta zerga guztien **%61**, patrikako telefonoz egin ziren.